

Plastiko fabrika erre da Lastaolako poligonoan

■ 'Plastienvas' enpresa da erre dena ■ Bernad Mols nagusiak uste du sua soldeatzeko txispa batek sortu izango duela.



Kixkali ondorengo fabrikaren itxura, atzo.

SUA ostiral gaueko 23:30ak aldera hasi zen. Bernad Mols enpresa jabea, bere fabrikari lanean ari zela. Sua sumatu zuenean bonberoei hots egin eta bera saiatu zen estintorearekin itzaltzen, baina, alperrik. Plastiko fabrika izaki, sua derrepente zabaldu zen. Nagusiak berak itzali ezin eta bonberoak iritsi zirenerako dena kiskali zen.

Oraindik ezer garbirik ez badago ere, litekeena da sua

soldadura txispa batek sortu izana, arratsaldean soldeatzen aritu ziren tokian piztu omen zen-eta.

MAKINAK ERABAT KISKALI GABE

Suak kalte handiak egin ditu *Plastienvas* enpresan. Materiala dena erre du. Baina, jabeak berak esan duenez, plastiko manipulatzeko makinak kaltea jaso dute; hala ere, erabat hondatuta ez egoteko

itxaropena du. Nolanahi ere, enpresa eta material guztia aseguratu dago.

ZAZPI LANGILE

Plastienvas enpresak zazpi langile -5 emakumezko eta 2 gizon-ek ditu. Enpresaren izenak dion bezala plastikoa enbasatzen du. Enpresa duela 4 urte sortu zuen Bernad Mols berak. Atzo goizean, lanean aritu beharrean kiskalitako lantegiari begira zeuden, buru makur. □

Aek-k matrikula irekiko du ekaina bitarteko kurtsorako

■ Datorren asteleheneetik otsailaren 9 arte izango da zabalik ■ Edoizein mailetan hasi liteke.

KURTSO hasieran sartu gabe gelditu denak orain euskara ikasten edo hobetzen hasteko aukera du. Urtero bezala AEK-k urtarrilean bigarren matrikulazio aldia hasiko du.

MATRIKULAK

Ikastaroak astean 4 edo 8 ordukoak dira: goizez, eguerdiz, edo iluntzez. Astean 4 ordu, ekaina bitartean: 10.000 Pta. 8 ordu: 20.000 Pta.

BERRIAK LEHENGO TALDEETAN

Matrikulatzen diren ikasle berriak dagoeneko martxan dauden taldeetan hasiko dira, bakoitza bere mailan. Hala egingo da, otsailean zaila delako ikasle berriez osatutako taldeak egitea. Hori bai, biltzen badira osatuko dira.

DIRU LAGUNTZAK

Kurtsu hasieran ekin zioten ikasleek bezalaxe, otsailean hasten direnek ere izango dituzte udalaren diru laguntzak. Ia klase guztietara joanez gero, matrikularen % 75 jasoko dute bueltan langabetu eta ikasleek; langileek, berriz, %50a jasoko dute. □

Danbor hotsak Hernanin San Sebastian bezperan

■ Elizatxo ikastolan, atzo, 400dik gora ikasleek jo zuten danborra, guraso aurrean.



Elizatxon ume eta irakasle danborra jotzen.

SARRIEGIren martxak ez ditu donostiarren bihotzak bakarrik hunkitzen. Hernaniar askori ere bizi poz ederra ematen dio bere umea danborra jotzen ikusteak. Hernanin, kalean ez, baina, ikastetxe

gehienetan ospatzen dute San Sebastian bezpera: Elizatxon sekulako festa egin zuten; Inmaculadan ere ikasleek -20 inguruk- guraso aurrean jo zuten; eta Urumean bakoitzak bere gelan jo zuen. □

ESKI IKASTAROA MENDIRIZ MENDIK

'Fondo' egitera, Pon d'Espagnera

■ 30 lagun inguru aterako dira gaur 07:00etan Atsegindegitik, asteburu pasa.

**ETXE ONENAK. S.A.**
**GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI**
Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

**HERNANI BIDAIAK**
HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA
HERNANI BIDAIAK
Urbietan, 6
☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxa: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

**OIALUME
BILTOKIA.**
EUSKAL GIROA
Igande eta jai egun
guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera.
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

**Antziola-Motor**
Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu


Marisol Yabenen argazki erakusketa ikusgai.
Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxa 943 55 21 96 HERNANI

KIROLA

PELOTA (EUSKADIKO TXAPELKETA)

Eli Lasa-Amaia Martinez Luiandoko (Araba) bikotearen kontra

■ Bat irabazi eta bat galdu dute Hernanikoek ■ Gaur, Kiroldegian, 16:00etan.



Hernani eta Lizarrako pelotariak, partidua bukatuta gero.

GIPUZKOAKO txapelketan 2. gelditu zirenez, Euskadikoa jokatzen ari dira Hernaniko taldeko Eli Lasa eta Amaia Martinez. Bost bikote daude beren taldean; beste taldean, berriz, sei. Launa sailkatuko dira final laurdenak jokatzen.

BAT IRABAZI ETA BAT GALDU

Lehen partidua erraz irabazi zion hernanik Abadiñori; lehen-go astean ordea ezin izan zuten Lizarraren kontra. Gaur, Arabako Luiando, eta datorren astean Lekora izango dituzte kontrario. □

FUTBOLA

Ordizian arituko dira neskak

EMAKUMEZKOEN ligan laugarren dira hernaniarrak. Hirugarren sailkatua (Tolosa) puntu bakarrera dute eta bigarren sailkatua (Antoniano) hirura; Ordizia, berriz, azken postuetan da. Gaur irabaztea oso garrantzitsua da txuri berdeentzat, lehen postuetan ibiltzeko gero, behintzat. □

ESKUBALOIA

Hernani eta Urdaibai gaur Mundakan

URDAIBAI taldea hirugarren postuan da Hernaniko taldeak baino bi puntu gehiagorekin. Gaur irabaztea lortuz gero, goiko postuei begira jarriko lirakeke hernaniarrak, onenetatik gertu. Gaur, larunbata, 18:00etan. □

BOLEIBOLA

UPV Hernanik partidua erraza du gaur

HERNANIKO taldea lider sendoa da Euskadiko Ligan. Gaur, azkena dijoan taldearen kontra jokatuko du Galdakaon, 18:30etan. Beste taldeak, Hernani KEk, partidua zailagoa du Sestaon. Gaur arratsaldeko 19:30etan. □



Gaur, Ordiziak baino indartsuago bultza beharko dute etxeok.

ERRUGBIA

Lehen postua jokoan, gaur Jubenilek

EUSKAL Ligan enpate dijoaz Hernani eta Ordiziako taldeak. Gaur irabazten duena jarriko da buru, eta liga irabazteko aukera askorekin gainera. Partidua Zubipen izango da arratsaldeko 16:00etan hasita. □

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Galdakaon 18:30etan
Galdakao B.T-UPV Hernani
Euskadiko liga
Sestaon 19:30etan
CV Trueba-Hernani KE

ERRUGBIA

2. Euskal Liga
Plentzian 16:00etan
Kakarraldo-Hernani
Jubenilak. Euskal Liga
Landaren 16:00etan.
Hernani-Ordizia
Kadeteak. Euskal Liga
Gernikan 11:00etan.
Gernika-Hernani

Infantilak. Lagunartekoa
Gernikan 12:00etan.
Getxo RT-Hernani

ESKUBALOIA

2. Nazionala:
Mundakan 18:00etan.
Urdaibai-Hernani

FUTBOLA

Emakumezkoen Liga:
Altamiran 12:00etan
Ordizia-Hernani
Gazteen 2.Maila
Zubipen 18:00etan.
Hernani-Danena
Kadeteen Ohorezko Liga
Zubipen 16:00etan
Hernani-Real Union
Haurren Ohorezko Liga
Unben 16:00etan.

Eibar-Hernani

PELOTA

KIROLDEGIAN 16:00ETAN HASITA:

Paleta Goma. Euskadiko tx:

Lasa-Martinez

Luiando

Jubenilak eskuz. Udaberri tx:

Hernani-Altzatarra

Kadeteak eskuz. Udaberri tx:

Hernani B - Aurrera Tolosa

Kadeteak eskuz. Udaberri tx:

Hernani A - Arrasate

IGANDEA

ERRUGBIA

1 Liga Nazionala
Landaren 11:30etan.
Hernani - Gernika RT

FUTBOLA

3.maila

Zubipen 16:30etan

Hernani-Zalla

Gorengo maila

Zubipen 18:30etan.

Hernani-Beti Ona

Gazteen liga nazionala:

Zubipen 11:30etan.

Hernani-Retuerto

Gazteen Ohorezko Liga

Unben 15:00etan

Eibar-Hernani

Kadeteen 2.Maila

Matigoxotegi 09:00etan.

Grosoko-Hernani

WATERPOLOA

2. Euskal Liga (Mutilak)

Kiroldegian 13:00etan.
Hernani - Easo

HITZ BITAN



Antziolan zanga ireki zuten erdiz-erdi.

ANTZIOLA

Obrak aurreratuta daude. Añarbeko Mankomunitatea duela hilabete batzuk hasi zen euri-ura eta ur zikinak bereizteko obra egiten. Oraindik erabat bukatu ez badute ere, tubo sartzea eta lanik handienak eginak daude.

SANTA BARBARA

Elkarteko loteria jasotzeko egunak. Santa Barbaran Eguberritako loterian zerbait tokatu da. Zenbaki saritua duena jasotzera pasa astelehenetik ostiralera 11:30-13:30 edo 18:30-20:00.

ESKOLARTEKO KIROLA

Atletismoko frogak gaur Antziolan. Ume tropa elkartuko da goizeko 10:30etan. Ikastetxe guztitakoak parte hartuko dute, benjamin eta alebinak.

Gerra Zibileko autobus bila ibiliko dira gaur Antziola bideko etxe batean

■ Ertzaintzako artezilariak etorriko dira ■ Antziola kalea itxita egon liteke 09:00etatik 12:00etara.

JOAN den larunbatean Antziolan etxea bota zuten. Etxe horretan, Gerra Zibilean bota eta lehertu gabeko autobus bat omen dago -hala diote han bizi

izandakoek-. Eraikuntza enpresak Ertzaintzarekin hitz egin du eta artezilariak bertan direla garbituko dute bonba egon litekeen etxe parte. □

AGENDA	ZINEA 'Jovenes prodigiosos' 19:30 eta 22:30etan Biterin	
	ERAKUSKETAK Olga Izquierdoren Postal erakusketa Txema tabernan	
	Marisol Yabenen kuadroak Ford Antziolan	

ZERBITZUAK	
☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622 Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 557750	Egunez: Irigoyen Elkano, 2 ☎ 943 552087 Gauez: Irigoyen Elkano, 2 ☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

■ Hernaniko jatetxe batean sukaldaria behar dugu.
☎ 943. 33 02 91

■ Yamaha Neos motoa salgai: ☎ 679-68 04 73